

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA****Akatsen zuzenketa**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 90. zenbakian (2022ko maiatzaren 12koa) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 98. zenbakian (2022ko maiatzaren 23koa), plantillako langile lan-kontratudun finkoen hiru lanpostu hornitzeko deialdiaren oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratu ziren hurrenez hurren, bai eta deialdiaren laburpena ere. Lanpostu horiek balio anitzeko administrari-postuak dira, eta oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, barne-sustapeneko sistemaren bidez, nahitaezko 2. euskarazko hizkuntza-eskakizunarekin. Lanpostuak lanbide-sailkapeneko 3. taldekoak dira (C taldea – C-1 azpitaldea).

6. oinarrian (eskabideak eta onarpena), oinarri orokorren 1.c) puntuan, eta 3. oinarrian (eskaerak), oinarri espezifikoetako 2. puntuan (aurkezteko epea), adierazi zen eskaerak 20 egun balioduneko epean egin beharko zirela, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Estatuko Aldizkari Ofizialean langile lan-kontratudunei lotutako deialdiak txertatzea nahitaezkoa da, baina langile lan-kontratudun finko berriei lotutako deialdiak bakarrik argitaratzen dira, eta ez barne-sustapen bidezkoak. Horregatik, honen bidez, egindako akatsa zuzendu nahi dugu. Espresuki idatzita geratzea nahi dugu eskaerak 20 (hogei) egun balioduneko epean egin beharko direla, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean akatsen zuzenketaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 25ean.—Zuzendari nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga.